## იან ბრაუნი.-ბასკოლოგიის შესავალი (ლექციების კურსი). აკად. არნ. ჩიქობავას. წინასიტყვაობითა და რედაქტორობით. თბილისის უნივერსიტეტის გამომცემლობა. თბილისი,1984.

Euskal Ikaskuntzarako Sarrera da, georgieraz idatzia. Egilea Jan Braun poloniar euskalaria eta argitaratzeilea Tbilisi-ko Unibertsitatea, 1984-an.

Georgieraz ez dakigunez, edukinetik eta bereziki bibliografiatik ohartzen gara liburuaren edukinez eta balioz.

Hara hemen bere aurkibidea: Arn. Chikobava-ren hitzaurrea. Atarikoa. I.—Euskaldunak. Ezaugarri nagusiak. II.—Euskaldungoaren historia. III.—Euskalaritzaren historia. IV.—Hizkuntzaren geografía, jatorria eta adierazpena. V.—Fonologia eta fonetika. VI.—Morfologia. Substantiboak eta adjetiboak. VII.—Izenak. Numeralak. VIII.—Aditza. IX.—Joskera. Eta bukatzeko bibliografia.

Besteak beste, bibliografia hortatik ikusten dugu non oinarritua duen bere lana: G. Lacombe, R. Lafon, J. Allières, H. Gavel, L. Mitxelena, N. Moutard, H. Schuchardt, P. Lafitte, I. L. Mendizábal, P. Zamarripa, K. Bouda, E. Lewy, R. M. Azkue, P. Lhande, D. Alzo, H. R. Marr, C. C. Uhlenbeck, R. R. Braun eta beste.